



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN LORATEGIAK ETA BERDEGUNEAK MANTENTZEKO ZERBITZUA

3. dokumentua Preskripzio Tekniko Partikularren Agiria

1. XEDEA

Preskripzio tekniko partikularren agiri (PTPA) honen xedea da BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN LORATEGIAK ETA BERDEGUNEAK MANTENTZEKO ZERBITZUA egiteko gida gisa erabiliko diren baldintza teknikoak definitzea.

2. DESKRIBAPEN OROKORRA

BBUPen jarduerak egiten diren kokalekuetan —hala nola HUAK, EUTak, balbula-gelak, deposituak eta abar— lorategi eta berdeguneak daude, eta horiek aldian behingo zainketak behar izan dituzte, bertan landatuta dauden espezieak mantentzeko.

Lorezaintzako lanak egiteko, zerbitzu espezifiko bat behar da, eta behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak dituzten enpresa espezializatuek egin behar dute.

3. IRISMENA

3.1 MANTENDU BEHARREKO KOKALEKUAK

Taula honetan ikusten da zerbitzuan sartzen diren kokalekuen eta azaleren zerrenda:

Eremua	Kokalekua	Udalerrria	Klasea	Maiztasuna (kop./urte)	Unit.	Kantitatea (m²)
A	LAS CARRERASKO DEPOSITUA	Abanto-Zierbena	5	5	m2	2400
A	LAS CARRERASKO PONPAKETA	Abanto-Zierbena	6	5	m2	350
A	LA ESPERANZAKO DEPOSITUA	Abanto-Zierbena	5	5	m2	500
A	GALLARTAKO PONPAKETA ETA KUTXATILA (2 INST.)	Abanto-Zierbena	6	6	m2	300
A	MURRIETAKO DEPOSITUA	Abanto-Zierbena	5	5	m2	2000
A	PERTXETAKO DEPOSITUA	Alonsotegi	6	3	m2	400
S	ALONSOTEGIKO GAINEZKABIDEA	Alonsotegi	6	3	m2	200
S	ALONSOTEGIKO PONPAKETA	Alonsotegi	6	3	m2	150
U	ZAMUNDIKO PONPAKETA	Alonsotegi	6	3	m2	75
A	IPIDEIKO PONPAKETA	Amoroto	6	3	m2	150
A	ARDIKEIKO XURG. DEPOSITUA	Amoroto	5	3	m2	600
A	BABOLIÑAKO PONPAKETA	Amoroto	6	3	m2	200
A	TELLERIAKO PONPAKETA	Amoroto	6	3	m2	200
U	BIZKERREKO DEPOSITUA	Arantz-Artea	6	3	m2	75
U	MARTXONDI GOIKOAKO DEPOSITUA	Areatza	6	3	m2	100
U	ALTAMIRAKO DEPOSITUA	Areatza	6	3	m2	100
U	LARRAGANGO DEPOSITUA	Areatza	6	3	m2	100
A	BETELURIKO EUT (egunero)	Arrigorriaga	1	12	m2	126200
A	BETELURIKO EUT (hamabostean behin - ostegunak)	Arrigorriaga	7	12	Unit.	40
A	BETELURIKO SARBIDEA	Arrigorriaga	5	9	m2	1200



A	OLLARGANGO BALBULA-GELA	Arrigorriaga	5	9	m2	1200
A	ATXUKARROKO GAINEZKABIDEA	Arrigorriaga	6	9	m2	250
A	NERBIOI 1EKO PONPAKETA	Arrigorriaga	6	9	m2	100
U	BRISKETAKO DEPOSITUA	Arrigorriaga	6	6	m2	150
U	LARRAZABALGO DEPOSITUA	Artea	6	3	m2	75
U	SARASOLAKO DEPOSITUA	Artea	6	3	m2	175
A	BILDOSOLAKO PONPAKETA	Artea	6	3	m2	150
A	FEDERICO MEATEGIKO PONPAKETA	Artzentales	6	3	m2	200
U	AXPEKO PONPAKETA	Atxondo	6	3	m2	120
U	ARRATZOLA GOIKOAKO DEPOSITUA	Atxondo	6	3	m2	75
U	AGARRE-BEHEKOA	Atxondo	6	3	m2	140
U	NAREAKO DEPOSITUA	Aulesti	6	3	m2	130
A	URKITXIKO PONPAKETA	Bakio	6	3	m2	200
U	SAN PELAIOKO DEPOSITUA	Bakio	6	3	m2	200
U	ARBIZKO PONPAKETA	Balmaseda	6	3	m2	100
A	UGARTEKO DEPOSITUA	Barakaldo	3	5	m2	14000
A	BASATXUKO DEPOSITUA ETA KANPO-ERAIKINA	Barakaldo	4	6	m2	9000
S	GALINDO-CADAGUAKO P-4 PUTZU BAKUNA	Barakaldo	5	9	m2	750
A	GURUTZETAKO ITURBURUEN PONPAKETA	Barakaldo	6	6	m2	350
A	GURUTZETAKO EUT	Barakaldo	5	6	m2	1000
S	BURTZENAKO PONPAKETA	Barakaldo	6	6	m2	200
S	LUTXANAKO PONPAKETA	Barakaldo	6	6	m2	200
S	LUTXANA-LASESARREKO PONPAKETA	Barakaldo	6	6	m2	75
A	GANBE BERRIA DEPOSITUA	Barrika	4	6	m2	3800
U	GANBE ZAHARRA DEPOSITUA	Barrika	5	3	m2	600
U	EROSOKO DEPOSITUA	Bedia	5	3	m2	150
A	BERMEOKO EUT	Bermeo	4	12	m2	5400
S	LAMIARANGO HUA	Bermeo	4	12	m2	6400
A	SAN ANDRESEKO PONP.	Bermeo	6	3	m2	500
A	SAN ANDRESEKO PRESA	Bermeo	3	1	m2	1500
A	UREPELEKO PONPAKETA	Berriatua	6	3	m2	200
A	ORUBIXEKO XURG. DEPOSITUA	Berriatua	6	3	m2	150
B	ALBIAKO BULEGOAK (hamabostean behin - astelehenak)	Bilbo	7	12	Unit.	70
A	LORURIKO BALBULA-GELA	Bilbo	3	5	m2	15000
A	BOLUETAKO AKUEDUKTUA (POLIGONOKO SIFOIA)	Bilbo	6	9	m2	400
A	REKAKOKO TUNELAREN IRTEERA	Bilbo	6	9	m2	250
A	REKAKOKO BALBULA-GELA	Bilbo	5	9	m2	850
A	REKAKOKO EROANBIDEA (HODIA)	Bilbo	5	9	m2	1000
A	TROKAS 1EKO BALBULA-GELA	Bilbo	6	6	m2	200
A	TROKAS 2KO BALBULA-GELA	Bilbo	5	6	m2	700
A	ARTXANDAKO DEPOSITUA (OBRAK)	Bilbo	5	6	m2	500
S	ELORRIETAKO PONPAKETA	Bilbo	5	6	m2	500
A	P-16 PONPAKETA (MAZUSTEGIKO BG)	Bilbo	5	6	m2	650



U	ARTAUNEKO DEPOSITUA	Dima	6	3	m2	150
U	IDEZURIKO DEPOSITUA	Dima	6	3	m2	210
U	BALTZOLAKO DEPOSITUA	Dima	6	3	m2	150
U	BITERIÑOKO DEPOSITUA	Dima	5	3	m2	140
U	LAMINDAOKO DEPOSITUA	Dima	6	3	m2	75
U	BERRIOKO DEPOSITU BERRIA	Elorrio	6	3	m2	130
U	SAN PABLOKO DEPOSITUA	Erandio	6	6	m2	250
S	ASUAKO PONPAKETA	Erandio	5	6	m2	1300
S	ASUAKO URA ERAMATEKO PONPAKETA	Erandio	6	6	m2	150
A	ARRIAGAKO BALBULA-GELA	Erandio	5	6	m2	500
A	ASTRABUDUAKO GAINEZKABIDEA	Erandio	5	6	m2	2500
A	BUSTERRIGANAPEKO DEPOSITUA	Ereño	6	3	m2	400
S	ETXEBARRIKO ET - SARBIDEA	Etxebarri	4	10	m2	3500
S	ETXEBARRIKO ET - BARNEALDEA	Etxebarri	4	10	m2	3200
A	EL BOQUETEKO BALBULA-GELA (2 INST.)	Etxebarri	6	6	m2	100
A	KUKULLAGAKO PONPAKETA	Etxebarri	6	6	m2	200
A	ATRAKZIO-PARKEKO PONPAKETA	Etxebarri	6	6	m2	200
U	BASOLAINGO DEPOSITUA	Fruiz	6	3	m2	250
U	KIRKINITUKO DEPOSITUA	Fruiz	6	3	m2	75
U	MANDALUNIZKO DEPOSITUA	Fruiz	6	3	m2	150
U	APERRIBAIKO DEPOSITUA	Galdakao	6	6	m2	175
A	ATRAKZIO-PARKEKO DEPOSITUA	Galdakao	5	6	m2	500
U	BEKELARREKO DEPOSITUA	Galdakao	6	3	m2	130
U	ERLETXEKO PONPAKETA	Galdakao	6	3	m2	175
U	ERLETXEKO DEPOSITUA	Galdakao	6	3	m2	125
U	PEÑONORIKO PONPAKETA	Galdames	6	3	m2	120
U	SAN ESTEBANGO DEPOSITUA	Galdames	6	3	m2	100
U	VILLAKO DEPOSITUA	Galdames	6	3	m2	75
U	GARAIO DEPOSITUA	Galdames	6	3	m2	150
U	AKENDIBARKO DEPOSITUA	Galdames	6	3	m2	125
U	LOBAKO DEPOSITUA	Gamiz-Fika	6	3	m2	100
U	HERRIKOBASOKO DEPOSITUA	Gatika	6	3	m2	300
A	BURGOAKO EUT	Gernika	4	12	m2	5500
S	IBARRA-LOSALGO PONP.	Gernika	5	3	m2	450
S	GERNIKAKO PONP.	Gernika	5	3	m2	820
S	ARRATZUKO PONPAKETA	Gernika	5	3	m2	870
A	ROMOKO LARRIALDIKO UR-ALDAKETAKO PONP.	Getxo	6	9	m2	75
A	OKAMIKAKO PONPAKETA	Gizaburuaga	6	3	m2	150
A	TELLERIAKO DEPOSITUA III	Gizaburuaga	6	3	m2	100
U	TELLERIAKO DEPOSITUA (Udal Sareak)	Gizaburuaga	5	3	m2	75
U	SAN JUAN BERBIKEZEKO DEPOSITUA	Gordexola	6	3	m2	100
U	BEREZALGO DEPOSITUA	Gordexola	6	3	m2	175
U	SAN ESTEBANGO DEPOSITUA	Gordexola	5	3	m2	175
A	LANDATXAKO DEPOSITUA	Gorliz	4	5	m2	4300



U	ZARAMILLOKO DEPOSITU NAGUSIA	Gueñes	6	3	m2	125
S	ZARAMILLOKO PONPAKETA (2 INSTALAZIO)	Gueñes	6	3	m2	400
U	AMETZAGAKO DEPOSITUA	Gueñes	6	3	m2	300
U	BASORIKO PONPAKETA	Gueñes	6	3	m2	100
U	NORTZAKO PONPAKETA	Gueñes	5	3	m2	75
U	UDEAKO DEPOSITUA	Igorre	6	3	m2	260
U	LARRAGANGO DEPOSITUA	Igorre	6	3	m2	200
A	IGORREKO PONPAKETA	Igorre	6	3	m2	150
U	ARTIKAKO DEPOSITUA	Ispaster	6	3	m2	125
U	KARABIKO DEPOSITUA	Ispaster	6	3	m2	120
U	BASOKOETXEKO DEPOSITUA	Ispaster	5	3	m2	150
U	ATXABALGO DEPOSITUA	Ispaster	6	3	m2	170
A	GARAIZARGO DEPOSITUA	Iurreta	3	6	m2	15000
A	GOIURIKO PONPAKETA	Iurreta	6	3	m2	100
U	GOIURIKO DEPOSITUA	Iurreta	6	3	m2	120
U	ARTATZAKO DEPOSITUA	Iurreta	6	3	m2	75
A	SANTI KURUTZEKO DEPOSITUA	Izurtza	4	3	m2	4000
A	ETXANOKO XURG. DEPOSITUA	Izurtza	6	3	m2	150
A	LEJARZA DORREKO XURG. DEPOSITUA	Izurtza	5	3	m2	700
A	TORREKO DEPOSITUA (GROBILETA)	Larrabetzu	5	3	m2	700
U	TORREKO DEPOSITUA	Larrabetzu	6	3	m2	125
A	GOIKOLEXEAKO XURG. DEPOSITUA	Larrabetzu	6	3	m2	100
A	BARRENETXEKO XURG. DEPOSITUA	Larrabetzu	6	3	m2	100
U	ALAIOKO PONPAKETA	Larrabetzu	6	3	m2	125
U	ALAIOKO DEPOSITUA	Larrabetzu	6	3	m2	200
U	GAZTELUMENDIKO DEPOSITUA	Larrabetzu	6	3	m2	200
U	UNBE MENDIKO XURG. DEPOSITUA	Laukiz	5	3	m2	150
U	GOIERTXUKO DEPOSITUA	Laukiz	6	3	m2	100
U	TRAUKOKO DEPOSITUA	Laukiz	6	3	m2	225
S	LAMIAKOKO PONPAKETA	Leioa	3	9	m2	12400
A	GAZTELUETAKO DEPOSITUA	Leioa	5	7	m2	1000
A	KURKUDIKO DEPOSITUA	Leioa	4	7	m2	6000
A	KOSTATZAKO DEPOSITUA	Lekeitio	4	3	m2	3000
U	ARRAÑOKO DEPOSITUA	Lemoa	6	3	m2	210
U	ALTZAKO DEPOSITUA	Lemoa	6	3	m2	100
U	ELORRIAGAKO DEPOSITUA	Lemoa	6	3	m2	100
A	GOIKOMENDIKO DEPOSITUA	Lemoiz	6	3	m2	75
A	ANDRAKAKO DEPOSITUA	Lemoiz	6	3	m2	200
U	EGUZKITZAKO DEPOSITUA	Lezama	6	3	m2	200
U	ASTOBITZAKO DEPOSITUA	Lezama	6	3	m2	125
U	MOTRUETAKO DEPOSITUA	Lezama	6	3	m2	100
U	ALKIRRIKO DEPOSITUA	Lezama	6	3	m2	100
A	KUKULUZKO DEPOSITUA	Loiu	6	5	m2	300
U	LAURO 1EKO DEPOSITUA	Loiu	6	3	m2	275
U	LAURO 2KO DEPOSITUA	Loiu	6	3	m2	150



S	ELOTXELERRIKO GAINZKABIDEA	Loiu	6	3	m2	300
A	HARROBIA IIKO PONPAKETA	Mañaria	5	3	m2	1500
U	URKULETAKO DEPOSITUA	Mañaria	6	3	m2	150
U	LEGORRAKO DEPOSITUA	Mañaria	6	3	m2	75
A	MEABEKO PONPAKETA	Markina-Xemein	6	3	m2	200
U	IBAZETAKO DEPOSITUA	Markina-Xemein	6	3	m2	230
U	BILLELABASOKO DEPOSITUA	Maruri-Jatabe	6	3	m2	200
U	INABASOKO DEPOSITUA	Maruri-Jatabe	6	3	m2	200
U	BAUARDOKO DEPOSITUA	Mendexa	6	3	m2	190
U	LOIBEKO DEPOSITUA	Mendexa	5	3	m2	150
A	ZABALONDOKO DEPOSITUA	Mungia	5	5	m2	2000
U	SANTA MARINAKO DEPOSITUA	Mungia	6	3	m2	200
A	MARKAIDAKO XURG. DEPOSITUA	Mungia	6	3	m2	300
A	BORJAKO DEPOSITUA	Muskiz	5	6	m2	2700
A	ESKURTOKO DEPOSITUA	Ortuella	3	6	m2	15000
A	ESKURTOKO PONPAKETA	Ortuella	5	5	m2	500
A	BALLONTIKO BALBULA-GELA	Ortuella	5	5	m2	1000
A	ISUSKIZAKO DEPOSITUA	Plentzia	3	5	m2	10000
A	LA FLORIDAKO DEPOSITUA- ERAIKINA (astero)	Portugalete	5	12	m2	800
A	LA FLORIDAKO DEPOSITUA	Portugalete	5	6	m2	1000
S	GALINDOKO HUA (egunero)	Sestao	2	12	m2	60585
S	GALINDOKO HUA (hamabostean behin - ostegunak)	Sestao	7	12	Un.	40
S	BW-EKO KUTXATILA	Sestao	6	6	m2	100
S	SAN KRISTOBALGO PONP.	Busturia	5	3	m2	800
S	KORTEZUBIKO PONP.	Gaitegiz Arteaga	5	3	m2	800
S	MURUETA 2, 3, 4 eta 5EKO PONP.	Murueta	5	3	m2	2000
A	AURREKOLANDAKO DEPOSITUA	Sondika	5	5	m2	1600
A	ARTXANDAKO XURG. DEPOSITUA	Sondika	6	5	m2	150
A	JARRALTAKO PONPAKETA	Sopuerta	6	3	m2	200
U	MERCADILLOKO DEPOSITUA	Sopuerta	6	3	m2	300
U	EL CARRALGO DEPOSITUA	Sopuerta	5	3	m2	175
U	SAN ROMANGO DEPOSITUA	Sopuerta	6	3	m2	175
U	ABELLANEDAKO DEPOSITUA	Sopuerta	6	3	m2	120
U	LA HERBOSAKO DEPOSITUA	Sopuerta	5	3	m2	100
U	ALENGO DEPOSITUA	Sopuerta	6	3	m2	75
U	BARRIONUEVOKO DEPOSITUA	Trapagaran	6	5	m2	100
A	ARBOLEDAKO DEPOSITUA (Patxo depositua)	Trapagaran	5	5	m2	1650
A	LA ESCONTRILLAKO XURG. DEPOSITUA	Trapagaran	5	5	m2	1200
U	CUETOKO DEPOSITUA	Turtzioz	6	3	m2	150
U	CUETOKO PONPAKETA	Turtzioz	5	3	m2	120
A	AGUANAZEKO PONPAKETA (2 INSTALAZIO)	Turtzioz	6	3	m2	75
U	GORDONGO DEPOSITUA	Turtzioz	6	3	m2	100
A	BENTAKORREKAKO DEPOSITUA	Ugao-Miraballes	5	3	m2	2000



U	MARKIOKO DEPOSITUA	Ugao-Miraballes	6	3	m2	75
A	ASTIBIKO PONPAKETA	Ugao-Miraballes	5	3	m2	500
U	UDIARRAGA BEHEKO DEPOSITUA	Ugao-Miraballes	6	3	m2	100
A	LARRAGOITIKO BALBULA-GELA	Urduliz	6	3	m2	200
S	URDULIZKO PONPAKETA	Urduliz	6	3	m2	150
A	GOIHERRIKO PONPAKETA	Zaldibar	6	3	m2	400
U	GOIHERRIKO DEPOSITUA	Zaldibar	6	3	m2	75
U	BILBATOKO DEPOSITUA	Zalla	3	3	m2	500
U	OTXARAN BEHEKO DEPOSITUA	Zalla	3	3	m2	150
U	OTXARAN ERDIKO DEPOSITUA	Zalla	3	3	m2	150
U	OTXARAN GOIKO DEPOSITUA	Zalla	6	3	m2	150
U	HERRERAKO PONPAKETA	Zalla	6	3	m2	75
U	TORREMONTEKO DEPOSITUA	Zalla	6	3	m2	120
A	LARROS IIKO DEPOSITUA	Zamudio	5	5	m2	2000
U	MENDIETA-MOIORDINGO DEPOSITUA	Zaratamo	6	6	m2	200
U	ELEXALDE GOIKIRIKO DEPOSITUA	Zaratamo	6	6	m2	200
A	UNDURRAGAKO PRESA (orokorra - sei hilean behin)	Zeanuri	3	2	m2	15000
A	UNDURRAGAKO PRESA (apaingarria)	Zeanuri	4	9	m2	4000
A	SOLOETAKO DEPOSITUA	Zeanuri	5	3	m2	800
U	URKIAKO DEPOSITUA	Zeanuri	6	3	m2	100
U	EMALDIKO DEPOSITUA	Zeanuri	6	3	m2	100
U	OGARABEITIKO DEPOSITUA	Zeanuri	6	3	m2	150
A	ORTUZARGO ASP. DEPOSITUA	Zeanuri	6	3	m2	200
A	ORTUZARGO XURG. DEPOSITUA (PONP.)	Zeanuri	6	3	m2	100
A	JAURIKO DEPOSITUA	Zeanuri	6	3	m2	200
U	SAN JUANGO DEPOSITUA	Zeanuri	6	3	m2	160
A	BERETXIKORTAKO XURG. DEPOSITUA	Zeanuri	6	3	m2	100
A	UDIARRAGAKO DEPOSITUA	Zeberio	6	3	m2	300
U	BERTZUTENGO DEPOSITUA	Zeberio	6	3	m2	210
U	ENTELLADORENAKO DEPOSITUA	Zeberio	6	3	m2	150
U	ERMITABARRIKO DEPOSITUA	Zeberio	6	3	m2	120
U	ZEBERIOGANAKO DEPOSITUA	Zeberio	6	3	m2	150
U	ARTAKO DEPOSITUA	Ziortza-Bolibar	5	3	m2	100
U	ERROTALDEKO DEPOSITUA	Ziortza-Bolibar	5	3	m2	400
U	ZIORTZAKO DEPOSITUA	Ziortza-Bolibar	6	3	m2	140
A	ZEINKAKO XURG. DEPOSITUA	Ziortza-Bolibar	6	3	m2	300



3.2 EGIN BEHARREKO LANAK

Egin beharreko lanek barne hartuko dituzte, gutxienez, ondoren zehazten direnak:

3.2.1 MANTENTZE-LANAK

Kokaleku bakoitzean egin beharreko lanak landatutako espezieen arabekoak izango dira, eta lorategiak eta berdeguneak egoera botaniko eta apaingarri ezin hobean mantentzeko balioko dute.

Hauek izango dira lanak:

1. Ureztatzea
2. Belar-mozketa
3. Ongarritzea
4. Aireztatzea
5. Arinki aitzurtzea
6. Tratamendu fitosanitarioa
7. Belardien trazadura, heskaiak eta profilaketa zaintzea
8. Garbiketa
9. Inausketa
10. Birlandaketa
11. Barruko jardineria mantentzea
12. Albiako lorategi bertikala mantentzea
13. Landare-estalkien mantentze-lan osoa egitea
14. Espezie inbaditzaileak tratatu eta erauztea
15. Endoterapia tratamendua
16. Zotalak erabiliz parterreak ereitea
17. Lorategi-eremuak konpontzea eta berriro ereitea
18. Inausketa-hondarrak birrintzea eta pilatzea, berrerabiltzeko
19. Ezpondak eta harri-lubetak konpontzea
20. Parterreen, arrokaen eta dunen mantentze-lan osoa egitea

3.2.1.1 Ureztatzea

Maiatzetik irailera bitartean ureztatuko da (biak barne), eta eguraldiak landare-espezieek bizirautea arriskuan jartzen duen bakoitzean (lehorte iraunkorra, bero-boladak, etab.).

Landare-elementuak noizean behin edo egunero ureztatuko dira, beharrezkoa den guztietan, eguraldiaren eta dauden landare-espezieen arabera: landare-elementu guztiek lurrian aurkitu behar dute normal hazteko eta garatzeko behar duten ur erabilgarriaren portzentajea.

Ureztatzeko, mahuka edo aspertsoreak erabiliko dira, ureztatu beharreko landaketak eta lurzorua egitura nolakoak diren. Zeregin horretan kontsumitutako ura BBUPen kontura izango da, eta adjudikaziodunak ureztatzeko behar-beharrezkoa den ura baino ez du erabili behar, eta gaizki itxitako ureztatze-ahoengatik edo beste edozein arrazoiengatik urik galtzen ez dela zaindu behar dute, eta matxura oro gertatu eta berehala jakinarazi BBUPi.

Alderdi hori behar bezala ez betetzeagatik edo ureztatzeengatik ur-isuriak, lurzoru-higadurak edo bestelako kalteak gertatzen badira, adjudikaziodunak bere kontura leheneratu beharko du eremu osoa, jatorrian zegoen bezala utzi arte.

BBUPek baimena eman ondoren, adjudikaziodunak bere kontura hobekuntzak egin ahal izango ditu ureztatze-sarean, eta haren jabetzan geratuko dira, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe. Kasu guztietan,



edozein eraberritze edo instalazio berrik dagokion araudia bete beharko du, eta Kontratuaren zuzendariaren baimena izan beharko du alde zuzenetik.

3.2.1.2 Belar-mozketa

Belarra urteko hilabete guztietan moztuko da, zehaztutako maiztasunarekin, ez dadin hazi halako moldez non, estetikoki nahiz fisiologikoki, soropilari kalte egiten dion. Arau orokor gisa, ez da onartuko 10 cm-tik gorako altuerarik. BBUk gehieneko beste altuera onargarri batzuk finkatu ahal izango ditu soropil mota bakoitzerako.

Eraikuntzetatik gertu edo lorategiak dauden lekuetan izan ezik, belarra ez da jasoko, baldin eta belarra mozteko sistemak birrintze-sistema bat badu. Horrela, medeagarri organiko gisa aprobetxatuko da lursailean bertan.

Beteluriko EUTak belarra mozteko robot bat du Kontrol Eraikinaren alboko lurzatian. Eremu horretan belarra mozteko lanean, ekipoa gainbegiratu eta mantenduko da. Ongarri unitateak dagokion azaleraren arabera izango dira, PTPA honen 1. motan ezarritakoari jarraituz.

3.2.1.3 Ongarritzea

Urteko hilabete guztietan ongarrituko da, instalazioari dagokion mantentze-gamak ezartzen duen maiztasunarekin, espezieak behar bezala haz daitezela lortzeko.

Lehentasunez, ongarri organikoa erabiliko da. Soropilak ongarritzeko, ongarri organiko hartzitua erabiliko da, dosifikazio honetan: 0,5 m³/area. Ongarri kimikoa gehituko da (50 g/m²) urtean hiru aldiz. Ongarri kimikoa aplikatzeko formula eta unea BBUk ezarriko ditu, eta lurzorua egoera fisiko-kimikoaren eta soropilaren egoera begetatiboaren arabera izango dira. Lore, zuhaixka eta zuhaitzetan urterokoak landatzen direnean, ongarri organikoz ongarrituko da lurra (zaldi-simaurra, neurri honetan: 1,5 m³/area).

3.2.1.4 Aireztatzea

Urteko hilabete guztietan aireztatuko da, instalazioari dagokion mantentze-gamak ezartzen duen maiztasunarekin. Malda leuneko eremuetan luraren aireztapena errazteko, belardietan hortz-area pasatuko da, gutxienez urtean behin. Udaberri hasieran eskarifikazio bat egingo da, eta, ondoren, soropil haziz (30 g/m²) berriro ereingo dira Kontratuaren zuzendariak zehazten dituen lorategi-eremuak.

3.2.1.5 Arinki aitzurtzea

Landare loredunetarako diren berdeguneak urte osoan zehar aitzurtuko dira arinki, belar txarrik egon ez dadin eta lurzorua egitura mantentzeko. Lursailetan landatutako zuhaixka eta zuhaitzen ingurua gutxienez bitan aitzurtuko da arinki, behin udaberrian eta behin udazkenean: 12/15 cm-ko sakoneran aitzurtuko da, 40 cm-ko erradio batean, sustraiei sistemari inola ere eragin gabe. Bideetan lerrokatutako zuhaitzen kasuan, txorkoaren azalera osoa aitzurtuko da.

3.2.1.6 Tratamendu fitosanitarioa

Tratamendu fitosanitarioa urteko edozein hilabetetan egin ahal izango da, kontratu honetan sartzen diren berdegune edo laboreek izurrik ez hartzeko.

Adjudikaziodunak beharrezkoak diren prebentzio-tratamenduak egin beharko ditu, bere baliabideekin eta dagozkion datuetan, berdeguneetako labore edo lurretako batean ager litekeen edozein gaixotasun edo izurri hasi edo zabaltzeko ez dadin, eta, gaixotasun edo izurri garatzen bada, erabat desagertu arte borrokatzeko egin beharrezko beste guztiak ere egin beharko ditu. Tratamendu horiek aplikatzeko, eraginkorrak eta pertsonentzat toxikoak nahiz gogaikarriak ez diren bitarteko, produktu eta prozedura modernoak erabiliko dira, eta alde zuzenetik BBUPi jakinarazi beharko zaizkio kasu bakoitzean erabiliko den produktuaren formula, metodoa eta dosifikazioa.



Adjudikaziodunak zenbat produktu fitosanitario eta non erabili duen erregistratuko du, eta kontratuan zehar detektatzen dituen espezie inbaditzaileen zerrenda eguneratua izango du. Informazio hori hileroko jarriko du Kontratuaren zuzendariaren eskura.

Tratamendu eta produktu fitosanitarioen ordainketa AKPan ezarritako prezio unitarioetan sartuta dago, modu proportzionalan.

3.2.1.7 Trazadura eta profilak zaintzea

Trazadura eta profilak urteko hilabete guztietan zainduko dira, instalazioari dagokion mantentze-gaman ezartzen denaren arabera.

Adjudikaziodunak eremu guztietako belardien egungo trazadura, heskaiak eta profilak mantenduko ditu, eta bere kontura konponduko ditu eremu horietan arrazoi naturalengatik edo lanak behar bezala ez egiteagatik eragindako kalte edo aldaketak.

3.2.1.8 Garbiketa

Garbiketa urteko hilabete guztietan egingo da, kontratu honetan sartzen diren instalazioak une oro garbi edukitzeko behar den maiztasunarekin.

Kontratista adjudikaziodunak zorrotz eta etengabe zainduko du parkeen eta berdeguneen perimetroaren barruko eremu guztien garbitasuna.

Lan horretan, elementu hauek kendu beharko ditu: berez hazitako landaredia (belar txarrak, sastrakak, etab.), hosto eroriak, sega-lanen, ebaketen eta inausketen hondarrak eta kontratuaren xede diren eremuetara edozein prozeduraren bidez iritsitako hondakin eta zaborrak.

Mantendu beharreko lekuetako bideak ere garbitu beharko ditu lan horretan, eta lan gehienak modu mekanizatuan egingo dira, erraztatzeko makina egokiekin.

3.2.1.9 Inausketa

Inausketak arrazoi estetikoengatik egingo dira, edo zuhaitzen osotasunari eusteko, eta zuhaitzik edo adarrik ez erortzeko inausiko da; hartara, ez zaie kalterik egingo oinezkoiei, inguruan aparkatutako ibilgailuei edo halakorik eroriz gero kalte gero kalte gero litekeen beste edozein ondasuni.

Arau orokor gisa, urritik martxora bitartean inausiko da (biak barne).

Inaustetik datozen zurezko materialak eta beste edozein motatakoak moztu eta berehala kudeatuko dira hondakin gisa. Hori ezinezkoa bada, eta suteen arriskua minimizatzeko, enborra eta adarrak behar bezala pilatuko dira, kontratistak hondakin gisa kudeatzen dituen arte.

3.2.1.10 Birlanaketa

Kontratista adjudikaziodunak unitateko prezioaren arabera hornituko du BBUP produktu guztiez, zuhaitzak, zuhaixkak eta soropilak barne. Unitateko prezioetan, dagozkion unitateen hornidura, garraioa eta landaketa sartzen da.

3.2.1.11 Barruko jardineraren mantentzea

Lan hauek egingo dira: ureztatzea, ongarritzea, inaustea, hostoak garbitzea, hosto lehorrak eta belar txarrak kentzea, jardineraren kanpoaldea garbitzea eta barruko espezie horien itxura hobetzeko beste edozein ekintza.

3.2.1.12 Albiako lorategi bertikala mantentzea



- Lorategiaren jarraipena egingo da, hilero bisita bat eginda, inausita, mozketak eginda eta hildako landareak kendu eta ordezkatuta.
- Eremua garbitu, ureztatzea kontrolatu eta berrikusi, eta lorategiaren online jarraipena egingo da.
- Elektrobalbulak urtean bitan garbituko dira, bisita bakoitzean iragazkia aztertuko da, eta, hala dagokionean, ordeztu egingo da.

3.2.1.13 Landare-estalkien mantentze-lan osoa egitea

Hiru hilean behin, zeregin hauek egingo dira:

- Belar txarrak eta landare arrotzak eskuz kentzea, hondakinak kudeatzaile baimendu batera eramatea, eta hondakinen kudeaketaren jarraipena egitea IKS sistemaren bidez, lan-zentro bakoitzari dagokion NIMA gaituta.
- Drainadurak, hustubideak eta estolda-zuloak begiratzea.
- Hutsuneak betetzea eta hornitzea.
- Birrindura zeramikoa eman eta zabaltzea.

3.2.1.14 Espezie inbaditzaileak tratatu eta erauzte

Lorategi-eremuetan ez dadin egon *Fallopia japonica*rik, *Cortaderia selloana*rik edo beste espezie inbaditzailearik, espezie aloktono inbaditzaileetat jotzen baitira eta ahalmen kolonizatzaile handiko gisa katalogatzen baititu abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuak, tratamendu hau aplikatuko da:

Fallopia japonica: udaberrian lurraren arrasean inausiko dira kimuak, eta baimendutako kudeatzaileak eramango dira landare-hondar guztiak. Kimu berriak 20-30 cm-ko altuerara iritsitakoan, tratamendu kimiko bat aplikatuko da baimendutako materia aktibo batekin.

Gainazal osoaren gainean, 170 g/m²-ko xafla plastiko beltz bat jarriko da, eta 250 g/m²-ko geotestil porotsuko bigarren geruza bat jarriko da gainean, berdea. Horrela, argirik ez da pasatuko, eta ez zaio ernaberritzen eta fotosintesiaren funtzioa egiten utziko. Maltza osoa 10/20/10 tetraaltzairuzko grapa batzuez (Ø10) ainguratu beharko zaio lurriari.

Sei hilean behin, xafla horiek altxatu eta % 45eko glifosatoa aplikatuko da, % 4ko dosian, eta 2 l/m²-ko salda kantitatea zabalduko da estalitako azalera osoan. Ondoren, bi xaflak berriro jarri eta lurrian finkatuko dira. Landare inbaditzaile hori erabat ezabatu arte errepikatuko da tratamendu hori.

Cortaderia selloana: landare honen loraldi handieneko hilabeteetan, luma-mototsak kendu, hazia ez sakabanatzeko plastikozko poltsetan sartu, eta baimendutako kudeatzaileak eramango dira. Ondoren, aireko zatia garbituko da, eta orobat kenduko dira landare zati guztiak eta behar bezala kudeatuko dira sortutako hondakinak. Jarraian, ale bakoitzaren tamainaren arabera, erabat erauziko da landarea, muilo eta guzti, eta % 45eko glifosatoa aplikatuko da, % 4ko dosian eta 1-3 litroko kantitatean landare bakoitzeko. Eragiketa hori hiru hilean behin errepikatuko da, zuhaitz-landareak erabat kendu arte.

3.2.1.15 Endoterapia tratamendua

BBUPen lorategi-eremuetako zuhaitz-espezieetan antzemandako edozein izurri edo gaixotasun ezabatzeko eta zabaldu ez daitezen, presio atmosferikoko endoterapia-tratamendu bat aplikatuko da (250 ml-ko dosia lurretik metro batera dagoen enbor-perimetroaren 20 cm-ko), edo Kontratuaren zuzendariak onartutako tratamendurik egokiena, tipologiaren arabera.

Materia aktiboen nahasketa helburuaren arabera izango da, eta beti erabiliko dira MAGRAMAK berdeguneetarako onartutako produktu selektiboak. Hona hemen izurri ohikoenak: kakalardoa, afidoak, kukurutxa, euli zuria, zulakaria, meatzaria, zurina, usteldura grisa eta gorrina.

Presurizatutako elementuak zerua oskarbi egon eta haize moderatuko baldintzetan aplikatuko dira, eta



aplikazioaren egun berean kenduko dira erabilitako elementuak zuhaitzetatik. Nolanahi ere, jarduketa horietako edozein egun aurretik, Kontratuaren zuzendariaren baimena beharko da.

3.2.1.16 Zotalak erabiliz parterreak ereitea

Maiatzean eta urrian ereingo da, 55 x 60 cm-ko lore-tapizarekin, 3 unitatek 1 m² osatzen dutenez. Zakua gutxienez 5 cm lodi izango da, eta zohikatz hori, zohikatz beltz eta silize-hareazko nahasketa bat edukiko du. Zuzendaritza fakultatiboak aukeratuko ditu espezieak kanpaina bakoitzean, eta mota hauetakoak izango dira beti: *Begonia semperflorens*, *Cyclamen*, *Viola tricolor*, *Anthurium*, *Impatiens hawkeri*, *Jacobaea maritima*, *Dianthus chinensis*, *Tagetes patula*, etab.

Landatu aurretik, lan hauek egin beharko dira:

- Sasiak kentzea, lurra garbitzea eta hondarrak kentzea.
- Lurrazala landatzeko prestatzea eta rotabatorea pasatzea, gordinki berdintzeko.
- Askapen moteleko hondoko minerala zabaltzea, 150 g/m²-ko dosian, eta eskuare-lanak eginez sartzea lurpean.
- Silize-harea ekarri eta zabaltzea (5 l/m²) eta gainazala berdintzea.

3.2.1.17 Lorategi-eremuak konpontzea eta berriro ereitea

Konpondu beharreko eremua balizatzeko da, eta berriz ereindako espezieak ernatu eta bi sega egin arte mantenduko da balizatze hori.

Gainazala egokituko da, alegia, lurra rotabatorea modu gurutzatuan pasatuz landuko da, eta harriak nahiz gainazalean gera litekeen edozein objektu edo hiri-hondakin solido eskuz kenduko. Konpondu beharreko gainazal osoan medeagarri organikoa emango da, behar bezala hartzitu eta konpostaturiko behi- edo zaldi-simaurra zabaldua (15 l/m²), tokian bertan silize-harearekin nahastuta, 50/50 proportzioan.

Medeagarri organikoa lurrian sartu eta askapen moteleko hondoko mineralak ongarrituko da: 50 g/m², 8-12-15eko aberasteekin. Gainazala arrastelatu eta berdindu, eta soropilerako espezie hauen lau hazi-nahaste ereingo dira, 100 g/m²-ko dosian: *Festuca rubra*, *Lolium perenne*, *Agrostis tenuis* eta *Poa pratensis*; hazia estali eta arrabol trinkotzailea pasatuko da. Erein-estalkia zabalduko da (6 l/m²), materia organiko birrindu eta bahetuz egindako eta silize-harearekin nahastutako ongarri bat, ureztatu eta bitan segatuko da.

3.2.1.18 Inausketa-hondarrak birrintzea eta pilatzea, berrerabiltzeko

Gutxienez 40 kw-eko potentzia izendatuko biobirringailu baten bidez —autonomoa nahiz traktorearen indar-hargunean akoplatzeko—, neguko inausketatik eta beste gorabehera batzuk direla-eta (fenomeno atmosferikoak, barne-zerbitzuak emateko eskakizunak eta beste) BBUPen instalazio periferikoetan sortzen diren jarduera puntualeetatik datozen adarrak eta enborrak birrinduko dira.

Arrabileko edo diskoko makinak erabili beharko dira, eta birrintze-ahalmena 30 cm-ko enbor-diametrokoa izango da. Birrintzearen ondoriozko materiala metro bateko altuera duten ilara batzuetan pilatuko da, Beteluriko EUTan dagoen egungo konpostatze-eremuan, eta ilara horiek urtean bitan irauliko dira, jarduera aerobikoa erraztu eta kalitate goreneko substratua lortzeko. Horrela, ondoren, zuzendaritza fakultatiboak agindutako kokapenetan aprobetxatu ahal izango da.

3.2.1.19 Ezpondak eta harri-lubetak konpontzea

Obrako ekipoak ezartzea, lurra hondeatzea eta kentzea, kamioira kargatzea eta baimendutako zabortegira garraiatzea, isurketa-kanona barne. Lurra prestatzea harri-lubetazko estalkia ekarri eta jartzeko; lehenengo ilaran 80 cm-ko sakonerako zapata izango du, hormigoizko oinarri baten gainean, eta 1 m³-ko hiru harri-ilaraz osatuta egongo da. Gomazko gurgilak dituen atzerako hondeamakina bat erabiliko da, 20 m² edo gehiagoko azaleretarako.

Ezpondak egonkortzeko jarduketa txikiak ere egingo dira, malden higadura finkatzeko eta prebenitzeko teknika multzo egokiena erabilita, eta, besteak beste, bioingeniaritzako nahiz ingeniaritza zibileko soluzioak edo horien



konbinazio bat erabilita.

3.2.1.20 Parterreen, arrokaen eta dunen mantentze-lan osoa egitea

Hiru hilean behingo lanak Galindo HUAko lorategi-eremu berrietan, Kontrol Eraikinaren aurreko lorategian, erregulazio- eta neurketa-zentro berriaren inguruan, baskula-eremuan eta dekantagailu biologikoetako dunetan, zeregin hauek barne:

- Sasiak garbitu eta moztea.
- Jorratu eta aireztatzea.
- Eremuetako bakoitzean jarritako landareak ordeztzea, batez ere: graminea apaingarriak, zitrikoak, herrestariak eta abar.
- Belar txarrak eta landare arrotzak eskuz kentzea, hondakinak kudeatzaile baimendu batera eramatea, eta hondakinen kudeaketaren jarraipena egitea IKS-EEM sistemaren bidez, lan-zentro bakoitzari dagokion NIMA gaituta.
- Birrindura organikoz edo pinu-azalez hornitzea, eta horiek lurrari eman eta zabaltzea, bigungarri gisa.

3.2.1.21 Mantentze-gama 1. MOTAKO berdeguneetan/lorategietan

Gama	Deskribapena	Kod.
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Ureztatzea	OP JD 01
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Belar-mozketa	OP JD 02
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Ongarritzea	OP JD 03
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Aireztatzea	OP JD 04
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Arinki aitzurtzea	OP JD 05
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Tratamendu fitosanitarioa	OP JD 06
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Trazadura eta profilak zaintzea	OP JD 07
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Garbiketa	OP JD 08
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Inausketa	OP JD 09

3.2.1.22 Mantentze-gama 2. MOTAKO berdeguneetan/lorategietan

Gama	Deskribapena	Kod.
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Ureztatzea	OP JD 01
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Belar-mozketa	OP JD 02
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Ongarritzea	OP JD 03
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Aireztatzea	OP JD 04
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Arinki aitzurtzea	OP JD 05
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Tratamendu fitosanitarioa	OP JD 06
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Trazadura eta profilak zaintzea	OP JD 07
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Garbiketa	OP JD 08
MG HA 1. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Inausketa	OP JD 09

3.2.1.23 Mantentze-gama 3. MOTAKO berdegune/lorategi ha batean (20.000 - > = 10.000 m²)

Gama	Deskribapena	Kod.
MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Belar-mozketa	OP JD 02
MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Aireztatzea	OP JD 04
MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Arinki aitzurtzea	OP JD 05
MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Tratamendu fitosanitarioa	OP JD 06
MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Trazadura eta profilak zaintzea	OP JD 07
MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Garbiketa	OP JD 08
MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Inausketa	OP JD 09

3.2.1.24 Mantentze-gama 4. MOTAKO berdeguneetan/lorategietan (> 10.000 - > = 3.500 m²)

Gama	Deskribapena	Kod.
------	--------------	------



MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Belar-mozketa	OP JD 02
MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Airezatzea	OP JD 04
MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Arinki aitzurtzea	OP JD 05
MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Tratamendu fitosanitarioa	OP JD 06
MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Trazadura eta profilak zaintzea	OP JD 07
MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Garbiketa	OP JD 08
MG HA 2. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Inausketa	OP JD 09

3.2.1.25 Mantentze-gama 5. MOTAKO berdeguneetan/lorategietan (> 3.500 - > = 500 m²)

Gama	Deskribapena	Kod.
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Belar-mozketa	OP JD 02
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Ongarritzea	OP JD 03
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Airezatzea	OP JD 04
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Arinki aitzurtzea	OP JD 05
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Tratamendu fitosanitarioa	OP JD 06
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Trazadura eta profilak zaintzea	OP JD 07
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Garbiketa	OP JD 08
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Inausketa	OP JD 09
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Sastraka-garbiketa	OP JD 10

3.2.1.26 Mantentze-gama 6. MOTAKO berdeguneetan/lorategietan (< 500 m²)

Gama	Deskribapena	Kod.
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Belar-mozketa	OP JD 02
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Ongarritzea	OP JD 03
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Airezatzea	OP JD 04
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Arinki aitzurtzea	OP JD 05
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Tratamendu fitosanitarioa	OP JD 06
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Trazadura eta profilak zaintzea	OP JD 07
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Garbiketa	OP JD 08
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Inausketa	OP JD 09
MG HA 5. MOTAKO MG BERDEGUNE/LORATEGIAK	Sastraka-garbiketa	OP JD 10

3.2.1.27 Mantentze-gama 7. MOTAKO barruko landareak dituen bulegoan

Gama	Deskribapena	Kod.
JARDINERAREN HILEKO MG	Ureztatzea	OP JD 01
JARDINERAREN HILEKO MG	Ongarritzea	OP JD 03
JARDINERAREN HILEKO MG	Airezatzea	OP JD 04
JARDINERAREN HILEKO MG	Arinki aitzurtzea	OP JD 05
JARDINERAREN HILEKO MG	Tratamendu fitosanitarioa	OP JD 06
JARDINERAREN HILEKO MG	Garbiketa	OP JD 08
JARDINERAREN HILEKO MG	Inausketa	OP JD 09

3.2.2 ESPEZIEEN INBENTARIOA MANTENTZEA

Kontratistak eguneratuta edukiko du BBUPen Beteluriko EUTaren eta Galindoko HUaren instalazioetan dauden espezieen inbentarioa. Horretarako, BBUPek adjudikaziodunaren esku jarriko du bere esku dagoen dokumentazio guztia, inbentarioa eguneratzeko lanen garapena errazteko.

Inbentarioa formatu digitalean aurkeztuko da, eta gutxienez informazio hau izango du: euskarazko, gaztelaniazko eta latinezko izena; espeziearen eta hostoaren/lorearen argazkiak; eta kokapena. Kokapen-plano bat erantsiko da, espezie bakoitza non dagoen adieraziko duena.



3.2.3 EROANBIDEETARAKO ZANGAK EGITEA:

Gomazko beldar-gurpilak eta 40 cm-ko pala duen 8 t-ko atzerako hondeamakina batekin, zangak egingo dira 60 cm-ko sakoneraraino; geotestila eta balasto-betegarria jarriko dira ganga-forma eta beheko aldean lau duen Ø160ko drainatze-hodi mikrozulatu baten inguruan, eta geotestila eskuz itxi eta granulometria desberdineko agregakinekin beteko da zanga.

Agregakinak 4 t-ko lur orotako obra-dunper kargatu batekin lagako dira ezarritako pilaketa puntutik, aurrez zehaztutako atzerako hondeamakinarekin.

3.3 BAIMENAK ETA LIZENTZIAK

Kontratutakoak hala eskatzen badu, adjudikazioduna arduratuko da baldintza-agiri honetan jasotako lanak egiteko beharrezkoak diren zeregin eta izapide tekniko-administratibo guztiak egiteaz (BBUP ez beste ente edo erakunde ofizial batzuen baimena, lizentzia edo onarpena eskatzea), eta kontratuaren arduradunari helarazi beharko dio horien kopia dokumentala.

Administrazioko eta kudeaketako gastu guztiak adjudikaziodunaren kontura joango dira, eta, lanak bukatutakoan, kontratuaren arduradunari emango dio sortutako dokumentazio guztia.

3.4 KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA TXOSTENAK

Prozesua efizientziaz egiten dela ziurtatzeko, informazioaren berri izan behar da, eta informazioa eguneratua izan; gainera, hura dokumentatu, erregistratu eta artxibatu behar da.

Kontratua ez da amaituko, harik eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu eta kontratu-arduradunak onartu arte.

3.4.1 INFORMAZIOA

BBUPek kontratistaren esku jarriko du bere esku dagoen dokumentazio guztia, kontratua erraz garatzeko.

Kontratistak konpromisoa hartzen du kontratua garatzeko BBUPetik lortutako informazioa isilpean gordetzeko, eta, bereziki, erabilitako teknologiar, iturburu-programei, prozedurei, software industrialari, plano eta eskemei, zehaztapenei, jarraibideei eta abarri dagokienez. Horiek guztiak inolako aldaketarik egin gabe itzuliko zaizkio BBUPi.

3.4.1.1 INFORMAZIOA EGUNERATZEA

Zerbitzua garatu bitartean informazio hori eguneratu eta osatu beharko du kontratistak, eta eguneratuta edukiko du kontratuan sartzen den instalazioen inbentarioa.

3.4.2 KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKO TXOSTENAK

Funtsezkoa da BBUPek bere produkzio-jarduerari eusteko egiten den ahalegina ezagutzea eta kuantifikatzea. Horretarako, eta mantentze-lanak etengabe hobetzeko oinarri gisa, beharrezkoa da informazioa izatea, eta, ondorioz, Kontratistak txosten hauek aurkeztu beharko ditu:

Hilero, kontratistak HILEKO TXOSTENA egingo du. Hona hauek izango ditu txostenak:

- Mantentze-zerbitzuaren kudeaketa-adierazleen emaitza:
 - Prebentziozko mantentzearen betetze-maila
- Egindako lanen banakapena, non adieraziko den zenbat jarduketa egin diren eta zenbat ordu eskaini dizkion langile bakoitzak jarduera bakoitzari, mantentze-lanaren arabera (prebentziozkoa, matxurak, aldaketa eta abar).



- Izandako gorabeheren erregistro xehea, honako hauek deskribatuko dituenak: akatsak, horien zergatiak, eta akatsak konpontzeko hobekuntza-proposamenak.
- Kontratuaren xede diren instalazioen mantentze-lanak eta erabilgarritasuna hobetzeko egokitzat jotako proposamen guztiak.
- Egindako lanen ZERRENDA BALORATU sinatua (neurketen eta kontratuaren aurrekontuaren arabera), ziurtagiria emateko oinarria izango dena.
- Kontratu-aurrekontuaren jarraipena

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Kontratistaren antolamendu-egiturak behar beste baliabide izango ditu kontratua behar bezala kudeatzeko eta BBUPi lanak egiaztatzen eta emaitzak kontrolatzen laguntzeko.

Kontratistak, gutxienez, bere kontura eduki beharko ditu ondoren zehazten diren giza baliabideak eta baliabide materialak, eta haien kostua bere gain hartuko du kontratuaren guztizko zenbateko ekonomikoaren barruan.

4.1 GIZA BALIABIDEAK

- Kontratuaren arduradun bat, ingeniari-tza agronomoko titulua duena, edo kontratuaren gaiaren inguruko espezialitate batekoa, eta bost urtetik gorako esperientzia duena; kontratistaren plantillan integratuta egongo da eta kontratistaren ordezkari gisa jardungo du, eta kontratu-zuzendaritzaren solaskidea eta lanen arduradun nagusia izango da. Gutxienez lanaldiaren heren bat eskaini beharko dio zerbitzuari.
- Giza baliabide espezializatuak, kopuru eta kualifikazio nahikoarekin, kontratua kontratu-baldintzetan betetzen dela bermatzeko.

BBUPen instalazioetan lan egiten duten langile guztiak lanok egiteko behar den kompetentzia profesionala eta prestakuntza-maila izango dute, eta kontratistaren ardura izango da bere ekipoak kontratatutako zerbitzuen xedera egokitzea.

Langile guztiak portaera egokia izan beharko dute, behar bezala uniformatuta, txukun eta behar bezala identifikatuta egon behar dute une oro —identifikazio-txartel pertsonala ageriko leku batean eramango dute—.

BBUPek beretzat gordetzen du langileak ordeztatzeko eskubidea, baldin eta langileak ez badatoz bat lehen aipatutako eskakizunekin, edo ez badute agindutako lanerako behar besteko gaitasunik eta trebetasunik erakusten, kontratu-zuzendaritzaren iritziz.

4.1.1 SUBROGAZIOA

Adjudikaziodun suertatzen den lizitatzailerak eskubide hori egiaztatzen duten langileak subrogatu beharko ditu. Subrogazioaren baldintzak AKPan zehazten dira.

Gaur egun dagoen plantilla indartzeko edozein langile kontratatzeko, eta baldintzak, soldatak, ordutegiak, barne-sustapenak, pizgarriak, antolaketa, langileen izen-zerrenda eta abar aldatzeko, berariaz jaso beharko da BBUPen onarpena, aldatu baino lehen eta behar besteko aurrerapenarekin.

Adjudikaziodunak ez badio BBUPi jakinarazten aurreko paragrafoan adierazitako edozein aldaketa, bere kabuz eta aldebakarrez egina, azkendu ahal izango da kontratua.

4.2 BALIABIDE MATERIALAK

- Kontratu honen xede diren lanak behar bezala egiteko beharrezkoak diren erremintak, makinak, eta era guztietako ibilgailuak, norbera eta taldea babesteko ekipamenduak eta beste.
- Ibilgailuak. Mantendu beharreko instalazioen sakabanatze geografikoa eta kopurua handia denez, kontratistak gutxienez 2 kamioneta eta lur orotako 2 ibilgailu izan beharko ditu une oro, zerbitzua gutxieneko baldintza egoki batzuetan egiteko.
- Lantegi, bulego eta aldagela propioak edo alokairuan hartutakoak, kontratua betetzeko behar diren giza baliabideen kopuruarekin bat datozenak (BBUPek ez du lokalik emango langileen bulego, aldagela, komun



eta abarretarako, ezta erremintak, makinak eta ibilgailuak gordetzeko ere, eta adjudikaziodunaren kontura izango dira arrazoi horiengatik sortutako gastu guztiak).

Lanen iraupenaren arabera, oro har eta instalazioan toki nahikorik badago, adjudikaziodunak bere kontura instalatuko ditu kontratatutako lanak normaltasunez egiteko behar diren etxolak, higiene-zerbitzuak, biltegiak eta bilketak, kontratuaren arduradunaren nahitaezko onespenez osten. Adjudikazioduna izango da eremu horietan ordena eta garbitasuna mantentzeko arduradun bakarra. Eremu horiek egunero txukundu beharko dituzte lanaldia amaitzean. BBUPEk eskubidea izango du, zabarkeriarik antzeman ez gero, eremu horiek hirugarren bat kontratatuta egiteko, eta adjudikaziodunaren kontura joango da zerbitzuaren kostua.

Adjudikaziodunaren kontura joango dira honako lan hauek eragindako gastuak: lursaila egokitzea; instalazioak ezartzea, kentzea eta lekuz aldatzea; obra osagarriak eraistea, eta okupatutako azalerak egokitu eta garbitzea jatorrizko itxura berreskuratzeko. Lan horiek kontratuaren arduradunaren adostasuna lortu beharko dute kontratua bukatutzat jo dadin.

Adjudikaziodunaren ibilgailuak BBUPen instalazioetan aparkatzeko, betiere horretarako lekua badago, kontratuaren arduradunak eman beharko du baimena, eta adjudikaziodunaren langileak instalazioan dauden bitartean bakarrik aparkatu ahal izango da.

BBUPek ez du bere gain hartzen adjudikaziodunaren bitarteko osagarrietan izandako lapurreten edo kalteen erantzukizunik. Horrenbestez, egokitutako jotzen dituen neurriak hartu beharko ditu lanak amaitu arte ekipoen segurtasuna bermatzeko.

4.3 HORNIDURAK

Kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren hornidurak, erregaiak, komunikazioak eta beste adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Oro har eta kontratuaren arduradunak berariazko baimenik eman ezean, adjudikaziodunak ezin izango ditu erabili BBUPen instalazioetako energia-iturriak (elektrikoa barne). Horrenbestez, bere bitartekoak erabiliz sortuko du (behar den legeko dokumentazioa edukita) kontratatutako lanak exekutzeko behar duen energia elektrikoa.

Ura hartzeko aukera izango du zehazten zaion tokian, eta saneamendu-sarerako lotunea ere izango du (beharrezkoa bada); adjudikaziodunaren ardura izango da langunerainoko edo langunetiko uraren banaketa- eta saneamendu-sarea. Biak eginda geratu behar dira indarreko Erregelamenduekin eta Segurtasuna arloan dagozkien Arauekin bat etorritik, eta kontratuaren arduradunaren onespenezkin.

4.4 BITARTEKO OSAGARRIAK

Enpresa adjudikaziodunak behar beste baliabide osagarri, aldamio, garabi, plataforma, ekipa elektrogeno eta abar hornitzeko betebeharra du.

Bitarteko osagarrien, aldamioen, garabien, plataformen, ekipa elektrogenoen eta abarren prezioak modu proportzionalean jasotzen dira unitateko prezioetan, eta, ondorioz, ez dira bereizita ordainduko.

4.5 AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak administrazio-baldintza partikularren agirian zehaztutakoa bete beharko du.

5. KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK

Kontratua PTPAn adierazitako kondizioak betetzeko egingo da, adjudikaziodunaren erantzukizunpean.

Adjudikaziodunak kontratuaren xede diren jardura guztietan aplikatu beharreko legeria, erregelamenduak eta legeko araudia bete beharko ditu, baita BBUPEk ezarritako prozedurak ere.



Jarduteko moduari buruzko edozein zalantza izanez gero, adjudikaziodunak kontratuaren arduradunarengana joko du, informazioa biltzeko.

5.1 KONTRATUAREN HASIERA ETA AMAIERA

Erabat debekatuta dago BBUPen instalazioetan edozein jarduera hastea kontratuaren arduradunaren berariazko baimenik gabe.

5.1.1 HASIERA

Kontratua hasitzat joko da kontratua sinatzen den egunaren osteko hilaren lehen egunean.

5.1.2 AMAIERA

Kontratuaren indarraldia igarotakoan amaitutzat hartuko da kontratua.

5.2 PROZEDURAK

Kontratistak bere kontura eta bere bitartekoak erabiliz eramango ditu BBUPen instalazioetara kontratuaren xede diren lan guztiak egiteko behar diren langileak eta baliabide materialak.

Kontratistak lanen plangintza egingo du, eta plangintza hori Aktiboak Kudeatzeko Zuzendariordezako Plangintza Arloetara bidali beharko da, haiek arduratuko baitira dagozkion lan-aginduak emateaz (era guztietako jarduketak egiteko ezinbesteko dokumentua).

Enpresa adjudikaziodunak Kontratuaren Zuzendaritzak gorabeherak, akatsak, matxurak, urgentzia- edo larrialdi-egoerak eta beste jakinarazteko ezarritako prozedurak onartuko ditu.

5.3 LANEN KOORDINAZIOA

Adjudikaziodunari dagokio PTPA honen xede diren lanak eta zerbitzu osagarriak ematen dituzten enpresenak koordinatzea.

BBUPek kontratatzen dituen enpresek zerbitzuak era sinergikoan eta koordinatuan ematea sustatu eta erraztuko du.

Adjudikaziodunaren lanak prozesuko lana edo aldi berean egiten diren «bestelako» lanak oztopatzen dituenen, kontratuaren arduradunak baimena ematean baino ez dira hasiko lanak.

5.4 KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

Kontratu-zuzendaritza kontratu-arduradun baten esku egongo da (BBUPeko plantillako ingeniaria). Arduradun horrek teknikari arduradun baten laguntza (BBUPeko langilea) eta/edo kanpoko laguntza teknikoa izango du. Langile hori arduratuko da kontratua betetzeko zuzendaritza-, jarraipen- eta kontrol-lanez.

Kontratu-zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontrol-neurriak ezarri ahal izango ditu kontratuaren kondizioak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, eta egindako lanen maila teknikoa egiaztatzeko egokitzen jotzen dituen ausazko ikuskapen guztiak egingo ditu.

Kontratuaren zuzendaritzak eskatzen duenean, enpresa adjudikazioduneko teknikariek presente egon beharko dute lan garrantzitsuak egiten diren bitartean.

Jarduketa bat egiten den egun bakoitzean, LAN-PARTE bat bete beharko da, eta hor, gutxienez, langileen zerrenda bat zehaztuko da, lan egindako lan-agindu bakoitzean zer dedikazio izan duten adierazita.

5.5 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA



Lanak egiteaz arduratzen diren langileek aplikatu beharreko laneko arriskuen prebentzioko legeak, arauak eta erregelamenduak oso-osorik beteko dituzte une oro.

Kontratistari dagokio laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-jarduerak antolatzea, bere jardura propioak ez ezik, azpikontratutako enpresenak ere bai.

Kontratuari lotutako prebentzio-jardura guztiak ENPRESA-JARDUERAK KOORDINATZEKO BERARIAZKO PROZEDURAK (PE-SST-10COOR) arautuko ditu; I. ERANSKIN gisa erantsi da.

BBUPen Prebentzio Zerbitzuek baliozkotu beharko dute prebentzio-jardura guztia.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

5.6 INGURUMENA

Lanak egiteaz arduratzen diren langileek ingurumenari buruz aplikatu beharreko legeria, araudi eta erregelamendu osoa beteko dute une oro.

Kontratistari dagokio ingurumenaren arloko jarduerak antolatzea, bai berarenak, bai azpikontratitzen dituen enpresenak.

Adjudikaziodunak II. ERANSKINEAN (INGURUMENA) zehazten diren BBUPeko Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntzako Zuzendariordetzaren kondizio guztiak bete beharko ditu, eta, behar izanez gero, horiek betetzen direla erakusten duten ebidentziak eman.

Ingurumenarekin lotutako jardura guztiak BBUPen Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntzako Zuzendariordetzak baliozkotu beharko ditu.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

5.6.1 GARBIKETA ETA HONDAKINAK

Enpresa adjudikaziodunak garbiketa-egoera onargarrian mantendu beharko ditu kontratu honen xede diren lanak egiteko erabiltzen dituen instalazioak edo esparruak.

Adjudikaziodunaren ardura da bere lanak egin bitartean sortutako hondakin guztiak kudeatzea, eta berariaz debekatuta dago era guztietako hondakinak BBUPen instalazioetan baztertzea edo biltzea. Hondakinak indarreko legeria aplikagarriaren arabera kudeatuko dira, eta BBUPen eskura egongo dira hondakinak behar bezala kudeatzen direla frogatzen duten egiaztagiria.

Aipatutako betekizunaren bat betetzen ez bada, kontratu-arduradunak hirugarren bati emango dio betebehar horiek egiteko ardura. Sortutako gastuak kontratistari deskontatuko zaizkio dagokion ziurtagirian.

5.7 KALITATEA ZIURTATZEA

Lizitatzailerak bere erakundeak kontratuaren betekizunak betetzeko gaitasuna duela ziurtatuko du.

Gaitasun hori ISO 9001 2008 ziurtagiriarekin edo goragoko beste batekin bermatuko da.

Ziurtagiririk izan ezean, BBUPek egokitzen jotzen dituen kontrolak onartuko ditu lizitatzailerak, eta haien kostua bere gain hartuko du.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

5.8 ZIURTAGIRIAK

Hilero, entregatutako ZERRENDA BALORATUAN oinarritutako ziurtagiria egingo du kontratistak, egindako lanei dagokienez.



Ziurtagiri partzialak behin-behinekoak baino ez dira izango, kontu onez eginak, eta ez dakarte berekin ziurtagirietan jasotako lanak onartzea.

Amaitu gabeko lanek, partzialki amaitu direnek edo gaizki egindakoek hasierako prezioaren proportzio berean murriztu ahal izango dute.

Alderdiek eztabaidatu eta onartu beharko dituzte prezio kontrajarriak, gauzatu aurretik.

Kontratu-zuzendaritzak alde aurretik onartu ez dituen lan gehigarriak edo aurreikusitakoetan egindako aldaketak ez dira ordainduko.

6. KONTRATUAREN BALDINTZA PARTIKULARRAK

6.1 KONTRATUARI ATXIKITAKO KONTRATISTAREN GIZA BALIABIDEEI BURUZKO BALDINTZAK

Oro har, adjudikaziodunaren langile kopurua ez dago finkatuta. BBUPek ez du baldintzarik ezartzen kontratistaren guztizko langile kopuruaren gainean, bai, ordea, horien lanbide-ezaugarrien gainean. Horregatik, gainerako langileek, emango zaizkien arduren arabera lanbide-heziketa, titulazioa eta esperientzia izatea eskatuko da. Alderdi horiek egiaztatzeko, kontratuan parte hartzen duten langileen ziurtagiri profesionalak aurkeztuko ditu adjudikaziodunak, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.

Langile guztientzat, ardura hauek hartuko ditu kontratistak bere gain:

- Prestakuntza egokia izatea eta mantentzea.
- Mendekotasun-harremanean egotea.
- Kontratatzeko den unetik bertatik operatibo izatea.
- Laneko arriskuen eta laneko osasunaren arloan gutxienezko jarduera den prebentzio-araudia betetzea.
- BBUPek segurtasuna eta osasuna hobetzeko ematen dituen jarraibide osagarriak betetzea.
- BBUPek segurtasunaren arloan ematen duen prestakuntza parte hartzea.

6.1.1 GIZA BALIABIDEEI BURUZKO BESTE BALDINTZA BATZUK

Kontratistak une oro kontrolatuta izango du bere ardurapeko langileak lanera agertzen eta lanean egoten direla, eta ezin izango ditu langile faltaren aitzakia lanak eten edo atzeratu; beraz, aurreikusita izango du istripu- nahiz gaixotasun-bajen edo beste edozein arrazoren ondoriozko absentziak berehala betetzea, zerbitzuari kalterik ez egiteko.

Kontratistaren eta bere langileen artean planteatutako lan-gatazka batek ere ez du izango eraginik kontratuaren baldintza ekonomikoetan, eta, beraz, benetan emandako zerbitzuak bakarrik ordainduko ditu BBUPek, eta zigorak aplikatu ahal izango ditu betetzen ez badira.

Kontratistak, zerbitzuak ematen hasi aurretik, kontratura bideratutako pertsonen izen-zerrenda aurkeztuko du, BBUPek edozein unetan identifikatu ahal izan dezan zer langile ari diren lanak egiten.

Kontratuaren indarraldian aldaketarik edo gorabeherarik gertatzen bada kontratuan sartutako langileen izen-zerrendan, horren berri emango dio BBUPi. Kontratistak ez badiu BBUPi jakinarazten berak alde bakarrez plantillan egindako edozein aldaketa, kontratua ez betetzeagatik zigorak ezarri ahal izango dira.

Langileak ordeztu behar badira, ordeztutako langileen kualifikazio eta prestakuntza berberak dituzten langileak ekarriko dira. Ordezkapenetan diharduten langileak ez dira izango BBUPen beste kontratu batzuei atxikitako langileak, beste batzuk baizik.

6.1.2 ADJUDIKAZIODUNAREN LANGILEEN GUTXIENEN PRESENTZIA-BALDINTZAK

Kontratistak zehaztuko du zer giza baliabide erabiliko dituen, baina, hala ere, taula honetan ezartzen da kontratistak tokian-tokian izan beharreko gutxienezko langile kopurua.



Kokalekua	Arduraduna	Lorezaintzako ofizial eta laguntzaileak
Hornidura	1	3
Saneamendua	1	3

Edozein motatako oporrak, baimenak, bajak edo absentziak bete egin beharko dira, gutxieneko presentzia-baldintzak urteko egun guztietan betetzeko moduan, aurreko taulan eskatutakoaren arabera.

7. KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Aurkeztu beharreko «Dokumentazio teknikoa» administrazio-klausulen agiriko dagokion atalean zehaztutakoa da.

Bilbon, 2025eko irailaren 1ean

Xabier Bikandi Markaida
Horniduraren Mantenimendu Ataleko Arduraduna